



Inauguratu dira EHUren uda ikastaroak

EHUk antolatutako udako ikastaro hauen hasierak bat egin du astebetez ardatz atlantiarra aztergai izan duen mintegiarekin. Atzo arratsaldean Donostian izan zen itxiera eta hasiera ekitaldi bikoitz honetan Jose Antonio Ardanza Eusko Jaurlaritzako lehendakariak, Menendez Pelayo Nazioarteko Unibertsitateko errektoreak, Emilio Ibarra BBVko lehendakariak, Juan Jose Goirienea EHUko errektoreak eta Asturiaseko Gobernuko lehendakariak hartu zuten parte, besteak beste. Ardanzak ikastaro hauen «gaurkotasan osoko gaien ugaritasuna eta aberastasuna» nabarmendu zuen bere sarrera hitzaldian eta, era berean, Menendez Pelayo bezalako beste unibertsitateekin elkarlanean ardatz atlantiarri buruzko mintegia eratu izana goraiatu zuen.

Hendaiako Udalak ikastolarentzat etxe berria eraikitzeke erabakia hartu du

Orain arteko egoitza erabiltzeko kontratua 1994ean bukatuko da

Hendaiako (Lapurdi) Udak Batzarreak Hendaiako ikastolarentzat etxe berri baten eraikitzea erabaki zuen ostegunean. Orain arte Udalak ikastolak erabiltzen dituen lokalen jabeekin kontratu bat zuten, ikasturtean zehar erabil zezaten, gero udan lekuak hustuz frantses udaleku bati tokia uzteko.

HUR GOROSTIAGA / HENDAIA

Kontratua 1994ean amaituko da eta Belles Etapes izeneko jabeekin ez dute erberritu nahi izan. Hola beraz, 1994. ikasturterako ikastola lokalik gabe geratu or-

dez, Hendaiako Udalak ikastolarentzat etxe berria eraikitzea erabaki du.

RPR-UDF, Biharko Hendaia, Partidu Komunista, Alderdi Sozialistako batzuk, independente eta sozialistekin aurkeztu ziren abertzaleen bozez, proposamena aurrera atera zen 23 botoz, sozialista baten ezezkioz eta 8 zuriz.

Hartutako erabakiaren arabera, Hendaiako igerileku ondoko Irandatz deitutako udal lurretan erabiltzeko da ikastola berriaren eraiketa eta heldu den 1994.eko irailarako prest egon beharko du, eta bitarte horretan orain dauden lokaletan segituko dute; nahiz eta egoera biziki txarrean izan. Erabaki honen aurretik hainbat proposamen egin ziren, hala nola

hiri-erdian husten ari zen eskola baten lokalak hartzea. Proposamen honek zirudien buruzkoena eta zuzenena, baina alboko ikastolako irakasleak guztiz kontra azaldu ziren. Beste aukera bat orain dituzten lokalen alboan etxe berri baten eraikitzea izan zen, baina Belles Etapes elkarrekin aukera hori baliatu nahi izan zuten eskaera izugarriak egiteko.

Kasu honetan argi geratu da alderdi frantsesen artean dagoen zatiketa ikastolari begira, Departamentuko Kontseilu Nagusian eskuindarrek ikastolen aurkako boza eman baitzuten eta oraingoan aldiz, aldekoa. Zuri bozkatu zutenek garestiegi zela argudiatu zuten, eta ikastola erakunde pribatua zela gaineratu.

Kolegioetako azterketa euskaraz egitea ez du onartzen Bayrouk

M. ESTEBAN / BAIONA

François Bayrou Hezkuntza Nazionalako ministro eta Pirinio Atlantiarretako Kontseilu Nagusiko lehendakaria Iparraldean izan zen atzo. Deklaratu zuenez, kolegioetako azterketa euskaraz egingo dute egin ikasleek. «Legea aplikatu behar dugu», esplikatu zuen Ministroak. «Lege honen arabera ikasle guztiak berdintasunean egon behar dute azterketen aurrean. Beraz 'Brevet des Collèges' azterketa frantsesez baizik ez da izanen».

Arazoa sortu zen azken urte hauetatik, Seaska ikastolen federazioko eta irakaskuntza publikoko ikasleek azterketa euskaraz pasatzea erabaki zutelarik. Hil honetan, ikasturtea bururatzeko ari da eta arazoa berpiztu egin da. Asteazkenean Ikas Bi irakaskuntza publikoko sistema elebiduneko gurasoen elkarteko kideek protesta bat antolatu zuten Donibane-Lohizuneko kolegioaren aurrean.

Atzo, Bayrou ministroak adierazi zuen azterketa euskaraz ez duela onartuko. Erran nahi du, aurtan behinpehin arazoa bere horretan geldituko dela. Aterabiderik gabe egonen dira eskola elebidunetako ikasleak. Hala ere Bayrouk gaineratu zuen euska-




François Bayrou.

M. E.

ra irakaskuntza publikoan hedatzearen alde dagoela. Ministroaren arabera, datoren hilabete hauetan fisika eta beste sailak euskaraz ikasteko parada ukanen dute ikasleek.

Bestalde, Seaskari buruz hitz egin zuen erranez ez duela amore emanen astelehenean gertatutako diru laguntzaren baztertezagatik. Oroitarazten denez, Kontseilu Nagusiko gehiengoak, Bayrouk proposatutako Seaskaren aldeko diru laguntza berriak ukatu egin zituen. «Gogoan dut Seaskako ordezkariekin biltzeko aterabideak aurkitzeko», azaldu zuen atzo Bayrouk. Ikastolak laguntzeko bere «determinazioa» plazaratu zuen.



MARIA JOSEFA
MANCISIDOR
ITURRIOZ

(Andrea)

Herenegun hil zen 66 urte zituelarik

— GOIAN BEGO —



PASAIKOA UDALETXEKO ALKATE,
ZINEGOTZI ETA LANKIDEOK.

PASAIKOA, 1993ko uztailaren 2an